



DIRU-SARRERAK

Gure helburua gaixotasunaren, hau da, minbizia duten umeen, ikerketa bultzatzeko etekinak lortzea dela nabarmendu behar da. Baita festibal garrantzitsu honetan zerbitzu desberdin bat eskaintzea ere. Beraz, gure helburua abiarazteko diru-sarrerak honako hauek izango dira:

Lehenik eta behin, gure enpresa aurrera eramateko 150.000€ behar izango ditugula berrikusi dugu. Diru honekin golf autoen eta lankideei soldata ordaintzearen gastua ordaindu ahal izango genuke. Beraz, Tomorrowlanden zerbitzu bat eskaintzearen truke, 100.000€ko aportazioa emango digute gure enpresarekin hasi ahal izateko.

Gure etekinak zehatz-mehatz jakitea ezineskoa denez jakinik, aurreikuspenak egin ditugu. Tomorrowland jaialdira urtero gutxi gorabehera 400.000 pertsonak bertaratzen dute, beraz, bi karrito mota desberdin ditugunez, hau da, bat 5 eserlekukoa eta bestea 7koa, ibilgailu hauen erdia (250) bost pertsonentzakoak izango dira eta beste erdia zazpi pertsonentzakoak. Pertsona bakoitzak 25€ ordaindu beharko dituen bidaiak bakoitzeko, eragiketarako eginez karrito guztiek buelta bat ematen badute 75.000€-ko etekina izango dugula kalkulatu dugu. Adibidez, ibilgailu guztiek, hau da 500 ibilgailuk, hamar buelta egiten badituzte, irabaziak 750.000€-koak izango dira.